

Literatura ▸ LIBURUAK

Azala eta mamia

MIKEL AYERBE

Bigarren liburuak liburu traidoreak izaten direla esan zidan behin editore batek. Are gehiago, lehenengo liburuak nolabaiteko arrakasta izan eta bigarren liburuen aurrean aurreiritziak sortzeko balio izan badu. Onerako edo txarrerako, bigarren liburuari nekez barkatzen zaizkiolako lehenengo liburuari barkatu zitzaizkionak. Horregatik, agian, han eta hemen konparatu egiten dira eten-gabe idazle beraren lehenengo eta bigarren liburuak, eta bietako baten aldeko hautua egiten da. Horregatik dira, beharbada, traidoreak bigarren liburuak.

Eta handik gutxira gaur izanzen Eider Rodriguezen lehen ipuin bilduma. *Eta Haragia* izena du bigarrenak. Hamabi narrazio biltzen ditu, eta guztietan gizon-emakumeon alderdi ezkutu eta iluna azaleratu nahi izan omen du idazleak. Narratziogintzan azkenaldiko euskal idazleen artean ikuspegi krudelaren aldeko apustua egiten dela esan izan bada, hona hemen beste adibide bat. Ipuin hauetako pertsonaia askok gordin, anker eta hotz jokatu dute inguratzen dituen errealtate gordin, anker eta hotza-

ren aurrean: langabeziaren, abandouaren, harreman defektiboaren —ezen ez afektibo— edo bestelako gehiegikerien aurrean. Eta narratzaileak ikuspegi gordin, anker eta hotzez aukeratuko ditu gertaera horiek islatzeko hitzak. Gertaerak eta, nola ez, pertsonaien barne psikologia konplexua aurkezteko. Testua makulu: «Iltzeen zarata entzun du gonako patrikan. Hatz batekin iltze punta estutu du, ziztatu arte, gero ahora eraman du eta herdoilaren zaporea lehertu zaio aho-sabaian. Ez daki iltzearena edo odolarena den herdoila». Hainbat narratziotarako aukeratutako aipuek ere hori bera ematen dute aditzera: Elfriede Jelinek-en «jasateko gai garen guztia merezi dugu» edo Elisabeth de Fontenay-ren «sufritzen duen gizaki oro da haragia» aipuek, kasu.

Irakurle honen iritziz, estiloan datza ipuin bilduma honen lorpen nagusia. Narratzaileak labana batez ebakitzen ditu pertsonaia, gertaera edota giro bat benetan nola den erakusteko esaldiak, eta egoeren estutze horri narrazio osoan eusten dio. Ipuinak autonomoak dira eta euren artean ez dira korapilatzen —nahiz eta irakurleari eginiko keinu baten gisan, *haragia*



■ 'Haragia'

Egilea: Eider Rodriguez.
Argitaletxea: Susa. **Urtea:** 2007.

hitza ipuin gehienetan agertu—. Baina nago ipuin guztietan aspiko ahots bat maisuki nagusitzen dela, estilo zehatz baten marmar isil baina iraunkorra aditzera ematen duena.

Ipuinen garapen narratiboak, aldiz, zalantza gehiago sor ditzake. Zenbait narrazio istorio orokorrako baten baitako une hautatuen kontaketa dira, eta argazki sekuentzia batera mugatzeko arriskuan eror daitezke. Hori esatean, *Salgai* ipuina datorkit burura. Beste narrazio batzuk hankamotz gelditu zaizkit, *Tekla bat* eta *Hirugarren oparia* kasu —azken hori, amaieragatik bereziki—. Ipuinotan, gertaeren garapen narratiboak baino gehiago, pertsonaien erai-kuntzak pisu gehiegi ez ote duen irudipena izan dut. Eta hala ere, *Nahia nuke gezurrik ez esan, T'est très belle, Ez du katu bat balio* eta *Erraustak* ipuin bikain bezain antologikoek gain hartu diete nire irakurketan ipuin xumeagoi. Azken batean, irakurlearen oroimenean ipuin bikainak gailentzen dira, bakoitzarenean bereak.

Usteak uste, gertaera bat dena zera da, azkenaldian nire inguruan zeresan gehien piztu duen liburua dela. Izan ere, liburuak horretarako arrazoi asko dituela deritzot, izenburutik eta azaletik hasita, narrazio hauetan irakurketa guztiz iradokitzailea aurkeztzen baita.

>> mayerbe@berria.info



■ 'Eleak eta bealeak'

Egilea: Izaskun Gracia Quintana.
Argitaratzailea: Arabako Foru Aldundia.
Urtea: 2007.

Arabako Foru Aldundiak antolatutako Ernestina de Champourcin poesia lehiaketa irabazi zuen poema bilduma honekin egileak, eta Harkaitz Canok idatzitako hitzazurra du liburuak atarian. «Kementsua behar du poetak eta kemen-tua da: ez du behiala ihes egin zion arima berreskuratzeko itxaropenik galdur», dio Canok hitzazur horretako pasarte batean.



■ 'Dufau bi anaiak'

Egilea: Henri Duhau. **Argitaletxea:** Elkar. **Urtea:** 2007.

Dominique Dufau (1880-1956) eta Christophe Dufau (1888-1922) anaien biografiak batu ditu liburu bakarrean Henri Duhauk. Notarioa, Sempereko auzapeza, Euskaltzaleen Biltzarreko diruzaina eta euskaltzain urgazlea izan zen Dominique. Christophe, berriz, medikua eta euskal kantuetan nahiz euskal musikan aditua. Dokumentu eta argazki ugari du liburuak.



■ 'Zumarragako baserriak'

Egilea: Antxine Mendizabal.
Ilustrazioak: Koldo Cadierno.
Argitaratzailea: Zumarragako Udala.
Urtea: 2007.

Zumarragako baserriei buruzko informazioa bildu eta baserri zaberrri banatuta eman du informazio hori liburuan Antxine Mendizabalek. Aurretik Jose Luis Ugarte, Angel Cruz Jakak eta Antonio Pradak egindako lanaren zordun da liburu neurri handi batean, eta zor hori aitortu du egileak atarian.

■ Haur eta gazte literatura

Ganbarako mundua

Trastez betetako ganbara leku ederra da norberaren ganbarako irudimena martxan jartzeko. Ispiluetatik ere atera dira aventura bat baino gehiago. Istorio honetan bi gauzak batzen dira: ganbaran dagoen ispilu batek eramango ditu protagonistak abenturara, lurralde ezezagunetara. Protagonistak berak kontaktatu du gertatutakoa, berak benetan bizi izandakoa balitz bezala. Hala ere, hamar urte inguru dituela kontuan hartuta, tartean behin hitz eta esaldi potolo samarrak erabiltzen ditu. Lurralde fantastiko batean egindako bidaia da, izaki fantastiko desberdin asko bizi diren lurraldean, alegia. Izaki horien izaera nahiko azaletik kontaktatu da, eta istoriaren nondik norakoa jarraitu badaiteke ere, landuagoak izan zitezkeen. Protagonista hazi eta heldu egingo da abentura hauei esker, eta besteekiko harremana aldatuko zaio, onerako. Amaren desgerpen eta berragerpenari nahiz horren eraginari buruzko detailak gehiagok borobildu egingo lukete kontaketa.



■ 'Andoitz eta lurralde ezkutuan'

Egilea: Fernando Morillo.
Ilustrazioak: Igor Fernandez.
Argitaletxea: Ibaizabal.



■ 'Abelin eta euria'

Egilea: Ana Maria Machado.
Ilustratzailea: Paula Alenda.
Itzultzailea: Patxi Ezkiaga.
Argitaratzailea: Ibaizabal.



■ 'Goazen'

Egilea: Charlotte Dematons.
Itzultzailea: Bakun euskara zerbitzua.
Argitaletxea: Tartatlo.

Etsi gabe

Abelin mutiko protagonista eta bere lagunak, beren herrian eta inguruan duten lehorte konpontzeko, euria eginazten saiatuko dira istorio honetan. Hori lortzeko, gauza asko egingo dituzte, baina ez du euririk egingo. Hala ere, ez dute amore emango, hariak eta euria egitea lortzen duten arte. Haien inguruko helduek haurren lorpenari egingo dioten gutxiestea ere gaintzea lortuko dute. Liburuak kontaketa baten moduan dago idatzita, eta, beraz, ahots gora irakurtzeko aproposa da, entzuleek ilustrazioak ikusten dituzten bitartean. Esaldi laburrak ageri dira, eta horren guztiaren lagungarri pare bat kantu ezagun dago. Ilustrazioak politak dira, dotoreak, eta istorioa testuinguruan ondo kokatzeko lagungarri dira. Lehortetik euri aldirako aldaketa ere ondo irudikatutik ematen du; hasieran lur koloreko marrazki iharrak ikusten hasi, eta amaierarako urmargoz eginiko marrazkiak bustiak ikusi ahal izango ditu irakurleak.

INAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

Irakurlea(ri) begira

Abenturazko istorio bat gertatzeko ingurua bezain garrantzitsua da abenturazalearen ikuspuntua. Leku ezagun batean sartzean burura pentsamendu berri eta berezi samarra etortzen bazaizu, lekua ezezagun bihurtzen da; abenturarako lurraldea. Horixe gertatzen zaio protagonistari, auzoko dendarako bidean etxeko lorategia zeharkatzen duenean. Protagonistak buruan dituen istorio askotako pertsonaiak eta gauzak topatuko ditu bidaia horretan. Irakurtzeko baino gehiago ikusteko liburuak da; hasiera eta bukaerako testuak nahikoak dira istorioa jarraitzeko. Irakurle-ikusleak ohikoa ez den ikuspuntutik jarraituko du bidaia, eta protagonistak berak zuzenean begiratu eta bidaia jarraitzeko gonbita egingo dio. Oso marrazki ederrak dira, zoragarriak, indar handikoak eta detailak beteak. Liburuan atzera eta aurrera ibiltzeraz bultzatzen dute. Dibertigarria da protagonistak dendarako bidean pasa duen denboran —lehen marrazkitik azkenekora— auzoan gertaturiko aldaketen bila aritzea.